

PROPOSAMENA, DONOSTIAN HARTU BEHARREKO ERREFUXIATUEI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO

Indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoak 148. artikuluan ezartzen duenez, batzorde ez iraunkorrek eratu daitezke, udal talde batek proposatuta, besteak beste –eta Udalbatzak aldez aurretik adostasuna emanda–, zeregin jakin baterako, zerbait ikertzeko, proposamenak egiteko edo antzeko helbururen baterako. Ez dute erabakitze ahalmunik izango.

Bai Afrikan bai Ekialde Ertainean eta Asian gaur egun jasaten ari diren lurralde arazoak eta gerra zibil eta erregionalak direla-eta, milaka eta milaka pertsonak ihes egiten ari dira trumilka gerra eremu horietatik Europarantz, komunikabideetan egunero ikusten dugunez. Egoera dramatiko eta tragikoak gertatzen ari dira ihesaldi horretan. Ihes egitean eta Europara iristean, milaka pertsona hiltzen ari dira, besteak beste, koordinazio falta nabarmena dagoelako eta errealitate lazgarri honi politikoki eskaini behar zaion arreta eskaintzen ez zaiolako.

Bai Gipuzkoako Aldundiak bai Donostiako Gobernuak jendaurrean iragarri zuten, irailean eta gerora egindako agerraldi batzuetan, dena prest zegoela errefuxiatuak hartzeko. Baina errealitateak erakusten digu iragarritako guztia ez dela betetzen ari.

Kontuan hartu behar da, bestalde, errefuxiatuen etorrera ez dela mementoko gertakaria, denbora tarte jakin bat baino iraungo ez duena, eta jakinda, gainera, gure hirira oraindik ez dela iritsi hartu beharko genukeen errefuxiatu talderik, bide ofizialetik kanpo etortzen direnak albo batera utzita –haiei ere kasu egin behar zaie–, behar-beharrezkoa da arazo honetaz arduratuko den batzorde bat lehenbailehen abian jartzea, pertsonak erasaten dituen arazoa baita eta hiriak prestatu behar baitu haiek hartzeko.

Horiek horrela, **EH Bilduk** honako **PROPOSAMENA** aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Grupo político Irabazi Donostia
Irabazi Donostia talde politikoa

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ijentea, 1 - Tel. 943481717
20003 Donostia

- **Batzorde Ez Iraunkor** bat eratzea, liskar eta gerra eremuetatik Europarantz ihes egiten duten errefuxiatuen inguruan dagoen informazio guztia aztertze eta haiei harrera egiteko esku-hartze plan bat ikertu, eztabaidatu eta prestatzeko.
- Batzordearen osaketa: ordezkari bana udal talde bakoitzeko.
- Iraupena: urtebete.
- Bilera araubidea: bilera bat hilean, gutxienez.

Donostia, 2016ko otsailaren 11a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea